

## 50 URTE

Berrogei ta amar urte igaro dira bai. Nik orduan bederatzi urte, urte beratan amar egiteko. Ez neban nik gudea ur-urretik ikusi, baiña zillegi izan bekit neure gomutapen txikiak eta aiztu-eziñekoak emen gogoratzea.

Gudeari buruz dodan lenengo gomutapena asierea bera da: Egun baten nire aita larri etorri zan etxera eta ikara aundiagaz berba oneik esan eutsazan amari: Gerreak urten dau! Esaldi orreri ez neutsan sakontasun aundirik emon, ume lez artu neban.

Urrengo egun baten etxazpiko soloan nenbillan. Soloa laietan, bei-buztarria tiratzaille zala eta aita laiariari eusten. Ni itaurrian. Egazkin bat igaro zan gure gaiñetik eta nik neure akullu txikiaren erpiña egazkiñari begira ipiñi neban berari tiroa jaurtiteko lez. Aitak esan eustan: Ez egizu ori egin! Zu lako mutiko batek ori egin eban eta abioitik bonbea bota eutsoen eta guztiak il ziran! Ulertu neban, bai, baiña sakontasun aundi barik.

Beste bein, etxetik Fika'ra bidean aita Arrana'ko Esteban'egaz berbetan egoan eta urriñeko erriren baten lerkaiak jausten ziran eta euren otsa, zaratea, argi-argi entzuten zan, burrunbada bildurgarria benetan. Nik bildurra gizon bi arein aurpegian ikusten neban eta bildur arek zurtz eginda izten nindun.

Goiko soloan, muiño-gaiñean lurra lantzen genbiltzala beste gauza arrigarri bat ikusi neban. Gero jakin al izan genduan zer izan zan: Bizkargi-gaiñetik irunen-irunen etorten ziran bein eta barrero egazkiñak eta aurreko eguneko baiño burrunbada aundiago entzuten genduan. Gernika'ko bonbaketa zan, zalantza barik. Urte asko igaro bear izan ziran egun aretako jazokizunen esangurea ta larritasuna bear zan sakontasunaz norberaganatzeko. Zortzi bat urte geroago izango zan, irakasleak Italika'ko etxe-ondakiñai egindako poesia'ren irakurketa egin euskun eta gero gai orreri buruz idaz-lan bat egiteko agindu. Ez daukat ondo buruan zer esaten neban, baiña bai Gernika'ra lerkaiak bota ebezan egazkiñak, madarikatuak zirala. Orregaitik ez jatan gauza aundirik jazo, baiña bai esan

eusten irakasleak, kontuz ibilteko eta politikara ez sartzeko.

Urrengo egun baten etxean gengoan eta egazkin urruma aundiak entzuten ziran. Bildurra bein eta barrero. Sasi-artean ostendu gintzazan eta naikoa urrean jausi zan lerkai bat. Zarata bildurgarria! Gudearen lenengo oar-ikasi bizia. Amama egoan etxean bakarrik eta bildurrez oiuka aurkitu gendun.

Egun gitxi geroago, etxetik urtetea erabagi genduan. Soloan zuloa egin, lurpean etxeko tretxurik geienak sartu eta bear-bearrekoak burdian artu eta etxetik kanpora. Gu aurretik kamioi baten joan giñan amama ta biok, Zamudio'ra Santo Domingo-aldean dan Agapito Furundarena'ren etxera, baiña aurreko gaba Zamudio'n igaro genduan, Sagasta edo olako izena daukan etxe eder baten. Apari beroegia emon euskuen, baiña gozo jan gendun. Urrengo goizean, Martin bertako agure zarra lagun genduala Agapito'ren etxera, San Antolin'en Baseleizea baiño apur bat gorago. An ille batzuk igaro genduzala uste dot eta San Antonio egunaren inguruan andik Begoña'ra joan giñan, Boni'ren etxera. Emen egun bi estu ta larri igaro ondoren Ronda kalean bizi zan Fika'ko alaba baten etxera. Egunik geiena trenaren mendi-zulo baten egiten genduan, baiña egun baten entzun al izan genduzan Bilbo'ra jausi ziran lerkai batzuren zaratak.

Bilbo arerioen eskuetara jausi zanean, oiñez etorri giñan etxera, burdia aurretik dala. Etxea obus batek zulatuta aurkitu genduan, baiña biziten asteko ondo. Etxe inguruan bedarra aundi eginda, iñoz ez lez. Anai zarren biak Bilbo'tik aurrera joan bear izan eben eta Zalla-inguruan, Otxaran'en igaro eben gudaldia.

Ume-aldiko gomutakiak! Gudearen ondoren larriak! Bakea maitatzen ikasteko bideak!

OLAZAR'tar MARTIN'ek

